

BALIO PROPOSAMENA

Aplikazio hau erabiltzerakoan eraso sexista baten aurrean modu azkar eta eraginkor batean erantzuteko ahalmena ematen dio erabiltzaileari.

Gure kasuan, doaneko zerbitzu bat eskaintzea proposatzen dugu. Horretarako, subentzioak bilatu beharko genituzke proiektua aurrera eramateko eta behin abiarazita martxan jarraitzeko. Beraz, bezeroak ez luke ezer ordaindu beharko.

Bezeroek gure enpresa, zerbitzua aukeratzearen arrazoia eta lehiakideengandik bereizten gaituena erabiltzaileak eraso baten aurrean azkartasunez erantzuteko aukera da. Gainera, beste antzerako aplikazioek poliziari bakarrik deitzen dio eta horretarako aplikazioan bertan sartu behar zera. Gure aplikazioak ordea, inguruan dauden eta aplikazioa deskargatua daukaten pertsonen aplikazioan sartu gabe abisatzeko aukera ematen du mugikorra modu jakin batean mugituz. Honekin, bezeroei erabilerraztasuna eta eskuragarritasuna emanaz.

Segurtasunari dagokionez, mugikorraren zenbakia erregistratua egongo da denuntzia eta abisu faltsuak egotekotan isun bat jasotzeko eta hauek ekiditeko.